

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

320/2026 Erabakia, maiatzaren 26koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Estavilloko Kudeaketa Batzordeko bokal kudeatzaileak izendatzeari

2026ko apirilaren 14an, Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeak Foru Aldundiari jakinarazi zion Estavilloko Administrazio Batzarrean bi postu huts zeudela, Edurne Martínez Pérez de Mendigurenek eta Ángel Duque Valluercak uko egin izanaren ondorioz. Izan ere, Alatzne Beitia Gambrak eta María José Cabo Martínezek errejidore-lehendakari eta 2. bokal karguak zituzten, eta postu huts horiek ezin izan dira bete ordeko hautetsirik ez zegoelako.

Horretarako, Arabako Foru Aldundiari eskatu zion kudeaketa batzorde bat osa zezala. Batzorde horretako kide izango dira, hala badagokio, hautaezintasun kausaren batean ez dauden hautetsi guztiak (kausa horiek Arabako Foru Aldundiko Errejidore eta Bokalak Hautatzeari buruzko 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauaren 4. artikuluan ezarrita daude), bai eta uko egin ez duten Administrazio Batzarreko gainerako kideak ere.

Horiek horrela, bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako errejidore eta batzarkideak hautatzeko Foru Arauak 19. eta 21. artikuluetan xedatutakoarekin eta Arabako administrazio batzarretako kudeaketa batzordeak eta bokal kudeatzaileak izendatzeari, eratzeari eta lanean aritzeari buruzko arauak ezarri zituen Foru Aldundiaren martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan xedatutakoarekin, bokal kudeatzailea izendatu behar da, kudeaketa batzorde horretan hutsik dagoen kargua betetzeko, hauteskundeak egin arte.

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren apirilaren 16ko 197/2026 Foru Aginduaren bidez, Estavilloko Administrazio Batzarri eskatu zitzaion bi pertsona proposa zitzala foru aldundi izendatzeko kudeaketa batzordeko kide izateko, hutsik dauden karguak betetze aldera.

Fede emaileak 2026ko maiatzaren 8an emandako ziurtagiriaren bidez, foru aldundi honi jakinarazi zaito kontzejuak urte bereko maiatzaren 7an egindako auzo batzarrean erabaki zela proposatzea Juan Muñoz Bartolomé 1. bokal kudeatzaile eta Michael Nathan Mcgladdery Eguiara bigarren bokal kudeatzaile karguak betetzeko.

Arabako Administrazio Batzarretako Kudeaketa Batzordeen eta Kide Kudeatzaileen izendapenari, eraketari eta funtzionamenduari buruzko arauak eman zituen martxoaren 26ko 829/1985 Foru Aldundiaren Erabakiaren bigarren apartatuko hirugarren puntuan xedatutakoa betetz, errejidore-lehendakari kargua Francisco Javier Ahedo Uriarte aurreko 1. bokalak hartuko du bere gain, eta proposatu zirenek, berriz, kide kudeatzaileen postu hutsak. Beraz, Estavilloko Kudeaketa Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

- Errejidore-lehendakaria: Francisco Javier Ahedo Uriarte.
- 1. bokala: Juan Muñoz Bartolomé.
- 2. bokala: Michael Nathan Mcgladdery Eguiara.

Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 1/2024 Foru Dekretuak eta 2023-2027 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak sail honi esleitzen diote, besteak beste, kudeaketa batzordeen izendapenarekin lotutako prozedurak kudeatzea, hala dagokionean.

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Antolaketa eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8.2.a) artikuluari eta 24.5 artikuluari jarraikiz, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Juan Muñoz Bartolomé izendatzea Estavilloko Kudeaketa Batzordeko 1. bokal.

Bigarrena. Michael Nathan Mcgladdery Eguiara izendatzea Estavilloko Kudeaketa Batzordeko 2. bokal.

Hirugarrena. Beraz, Estavilloko Kudeaketa Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

- Errejidore-lehendakaria: Francisco Javier Ahedo Uriarte.
- 1. bokala: Juan Muñoz Bartolomé.
- 2. bokala: Michael Nathan Mcgladdery Eguiara.

Laugarrena. Martxoaren 26ko 829/1985 Erabakiak bigarren apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, errejidore-lehendakariak horretarako beren-beregi deituko duen bilkura berezi batean jabetuko dira karguez bokalak. Erabaki hau jaso eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan egingo da bilkura hori.

Bilkura egin ondorengo hiru eguneko epean bidali behar zaio Arabako Foru Aldundiari bilkura horretako aktaren ziurtagiria.

Bosgarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak erabaki hau ALHAOn argitara dezala, eta Estavilloko Administrazio Batzarrari, Armiñóngo Udalarari eta Arabako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeari helaraz diezaiela.

Seigarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hori behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera. Nolanahi ere, aurrez aukerako errekerimendua egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA